

## **“GURE KREDITU GUZTIA MEREZI DUTE” KANPAINA PUTXITOAK: MIKROKREDITU SOLIDARIOAK**

Bilbon, 2010eko uztailaren 19an

Lagun agurgarria:

Berriro ere, bene-benetan eskertu nahi dizugu “GURE KREDITU GUZTIA MEREZI DUTE” mikroredituen kanpainari emandako babesa. Zure elkartasuna funtsezkoa da, proiektu honi eusteko orduan.

Mundubat-ek hitzarmena ezarri du 2004an Mundubat Fundazioan bertan sortutako irabazi-asmorik gabeko Elkarcredit elkartearekin (lehengo PTMcredit), mikroredituetako fondoak kudeatzeko. Hartara, Mundubat-ek putxito solidarioen kanpainan lortutako baliabideak transferitzen dizkio Elkarcredit-i, finantza solidarioen kudeaketan aditua den erakundeak Mundubat-ek hegoaldean dituen toki-erakunde bazkideei errebolber-fondoak utzi diezazkien.

Elkarcredit-ek Mundubat Fundazioko lankidetzeta-proiektuetako mikroreditu eta txandakako fondoekin zerikusia duten jardueren jarraipena ere egiten du.

2009an, putxito-fondoei eta Elkarcredit-en kudeaketari esker, zenbait ekimen ekonomiko finantzatu ditugu. Batzuk aurreko urteetan abian jarritako jardueren jarraipena izan dira; eta beste batzuk, ekimen berriak.

Hona hemen azken seihilekoan, 2010eko urtarriletik ekainera, garatzen ari garen proiektuen bilakaera:

<p style="text-align: center;"><b>SALVADOR: PROCOMES ELKARTEAREKIN EGINDAKO PROIEKTUA</b></p>
---

Oraindik ere, honako proiektu honetarako hirugarren putxito-mailegua dago indarrean: **“San Salvadorko metropolialdean, biziraupenaren sektoreko mikroenpresak sendotzea, mikroredituaren, prestakuntzaren eta laguntza teknikoaren bidez”**. Ekainean, ordea, bigarren mailegua itxi zen, fondoak itzultzean. Proiektua bera PROCOMESek kudeatzen du, eta talde solidarioen metodologiaren bitartez garatzen da San Salvadorko metropolialdeko hiru hirigune baztertutan: Mejicanos, Ayutuxtepeque eta Cuscatancingo.

Hona hemen 2. PROCOMES-Putxitoak maileguaren behin betiko emaitzak:

- Hasieratik emandako maileguen kopurua: 225. Euretatik, 188 emakumeentzat izan dira; eta 37, gizonentzat.
- Kokatutako eta berkokatutako zenbatekoa guztira: 48.767,00 \$. Hortik, %81 emakumeek erabili dute; eta %19, gizonek.
- Maileguaren iraupena: 2 urte. Mikroredituak lekurtzeko batez besteko epea 6 hilekoa izan da; eta batez besteko balioa, 216´74 \$-koa.
- 19 talde solidario eta euren zuzendaritza-batzordeak eratu dira, eta 3.560´00 \$-ko berme-fondoa (aurrezkia) metatu dute, mikroenpresariak mozkin eduki dezaten eta negozioa buruaskia izan dadin.
- 148 autoenpleguren sorrera sustatu da San Salvadorko metropolialdeko ekonomiako sektore informalean (Mejicanos, Ayutuxtepeque eta Cuscatancingo), eta atenditutako mikroenpresariak diru-sarrerak %25 handitu dira.

Emaitza horiek lortzeko, kreditua eman zitzaien, baina horrez gain, honako jarduera hauek ere jarri ziren abian, besteak beste:

1. Herri-ekimen ekonomikoen bideragarritasuna: mikroenpresak eta euren funtzionamendua aztertu ziren, negozioaren bideragarritasuna bermatzeko. Horrez gain, administrazioko, merkaturaketako... oinarritzko kontzeptuei buruzko prestakuntza eman zen.
2. Kreditua erabiltzeko eta kredituaren jarraipena egiteko oinarritzko jakintzei buruzko prestakuntza eta hamabostean behingo bisitaldiak egin ziren, inbertsioari eta ordainketa-egoerari buruz aholkatzeko.
3. Generoari buruzko sentsibilizazio-hitzaldiak antolatu ziren, inguruan gauzatutako beste proiektu batzuetatik egindako lana indartzeko.

**NIKARAGUA:**

- 1. EL VIEJOKO LANDA KOOPERATIBEN BATASUNAREKIN EGINDAKO PROIEKTUA (UCREV)**
- 2. NICARACOOPEkin EGINDAKO PROIEKTUA**

Seihileko honetan, UCREVentzako laguntza berritu da, honako proiektu honetarako “hirugarren putxito-mailegu solidarioa” sinatzean: **“Elikaduraren segurtasuneko baldintzak hobetzea, Chinandegako El Viejoko udalerriko ekoizle txikiei emandako kredituaren bitartez”**.

Hona hemen proiektuaren helburuak: batetik, El Viejoko udalerriko (Chinandega) lau landa-kooperatibatan antolatutako 66 ekoizle txikiren elikadura-segurtasuneko baldintzak hobetzea; eta bestetik, oinarritzko kooperatibek eta El Viejoko Landa Kooperatiben Batasunak (UCREVek) antolakuntzaren eta instituzioen arloan dituzten gaitasunak garatzen jarraitzea. Oro har, ekoizpen zein ingurumen arloko baldintzen hobekuntzarako proiektua sustatuko da, eta atentzio berezia emango zaio emakumeek ekoizpenenean zein erakundean bertan duten partaidetzari. Kredituaren bitartez, nekazarien ekonomia suspertzea da helburua, landa-erkidegoetan ekoizpena, eraldaketa eta merkaturaketa sortzeko eta, horren ondorioz, biztanleen baldintza ekonomikoak zein bizi-kalitatea hobetzeko. Hain zuzen ere, honako hauexek izango dira ekoizpen-inbertsioaren xedeak: lehen mailako nekazaritza-ziklorako intsumoak, ongarriak, uzta eta merkaturaketa.

Onuradunak 34 emakume eta 32 gizon dira, prestakuntza akademiko urria dute eta euretako batzuek honako gai hauei buruzko unean uneko prestakuntza jaso dute: elikaduraren subiranotasuna, nekazaritza organikoa eta prestakuntza kooperatiboa. Jabetza txikiko eta finantziazio-aukera gutxiko nekazariak dira, eta honako hauxe dute bizibide: eskala txikiko abeltzaintza, oinarritzko aleen ekoizpena (arropa eta sorgoa), barazkiak, arrantza eta artisauen erara egindako izkira-ekoizpena. Kredituko onuradunak oinarritzko lau kooperatibatan daude antolatuta, eta, aldi berean, kooperatiba horiek Kooperatiben Batasunean daude elkartuta (UCREV).

Era berean, seihileko honetan, honako proiektu honetarako putxito-mailegu solidarioa onartu zaio NICARACOOPE elkarteari: Nikaraguako Leongo Departamentuko **“Erle-ezti organikoa biltzea eta merkaturatzea eta babarrunak ereitea”**. Finantza-laguntza hori eman zaie, El Sauceko udalerriko erle-eztigintza eta Cardenasko udalerriko babarrun beltzak merkaturatzeko jardueretarako lan-kapitala eduki dezaten. 90 ekoizle izan dira fondo hauekiko onuradunak, eta, euretatik, 35 emakumeak izan dira; eta 55, gizonak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, gurekin jarri harremanetan, mesedez.

Besarkada solidario bat,

Iñaki Markiegi  
Mundubat-eko presidentea

Jose Angel Apaolaza  
Elkarcredit-eko presidentea